



**2010EKO MARTXOAREN 25EKO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko martxoaren hogeita bostean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M<sup>a</sup> Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Felix Urkola Iriarte eta Inazio Estensoro Eskisabel zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTAK.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten dira 2010ko urtarrilaren 28an egindako ohiko eta 2010eko otsailaren 18an egindako ez-ohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- 2009KO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-**

Alkateak 2009ko aurrekontu likidazioaren berri ematen du.

Halaber 2010eko aurrekontuari egindako kreditu txertaketa bidezko 1 zbk.dun kreditu aldaketaren berri ematen zaio Osoko Bilkurari. Txertatzen diren kredituak guztira 1.155.537,35 euro dira eta kreditu hauek finantzatzeko finalistak diren diru-sarrerak eta diruzaintzako gerakina hartzen dira.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-**

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.



Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Gaia eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako hau

### ERABAKI DA

**Lehenik.**- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

### KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	413.000 €
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		<b>413.000 €</b>

### FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VI	Inbertsioen besterentzea	11.000 €
VIII	Finantza aktiboak	402.000 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>413.000 €</b>

**Bigarren.**- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

### V.- ESTALIGABEKO IGERILEKUEN OBRA LIKIDAZIOA ETA OBRA AMAIERA.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren aldamenean eraikitzen ari diren Estali Gabeko Igerilekuak lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek lanen likidazioa den obra egiaztatzea luzatu dute. Obra egiaztatze honen zenbatekoa EHUN ETA BE-





RROGEITA HAMALAU MILA BEDERATZIEHUN ETA BEDERATZI EURO eta BERROGEITA BI ZENTIMOTakoa (154.909,42 €) da. Lan hauek Altuna y Uria, S.A. enpresa burutu ditu.

Halaber lanen obra zuzendaritzak obra-zuzendaritzaren amaiera ziurtagiria luzatu du, 2010eko otsailaren 26ko datan.

Obraren likidazioa esleitutako zenbatekoa baino hirurogei mila eta bi euro eta hirurogeita bost zentimo (60.002,65 €) gehiago izan da, eta obra zuzendaritzaren txosten bi-dez zurituta dago.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Serna zinegotziak (PSE-EE) desbiderapenei buruzko argibideak eskatzen ditu eta alkateak argibide horiek ematen dizkio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Estali Gabeko Igerilekuen eraikuntza lanen likidazioaren obra-egiaztagiria, gainkostua barne, eta lanen amaiera onartzea erabakitzen du.

#### VI.- KUTXAKO ORDEZKARIA IZENDATZEA.-

Gipuzkoa Donostia Kutxa entitatetik jasotako idatziaren arabera, Kutxaren Gobernu Organuak berritzeko prozesua abiatu dute eta Lazkaoko Udalari kontseilari bat izendatzea dagokio.

Hau kontutan izanda, alkateak esaten du Osoko Bilkurara aurkezten den proposamena titular gisa Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia izendatzea eta ordezkari gisa bera, Patxi Albisu Estensoro izendatzea dela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du bere egunean, Kutxarako udal elkartearen egi-tearena onartu zenean, esandakoan berretsiko dela, hau da, udalerraren eta udalaren defentsari begira ez baizik eta jokaldi politikoa iruditu zitzaizela eta horregatik proposamena- ren aurka bozkatuko dutela.

Gaia bozketan jartzen da eta Udal Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (EAJ, PP), aurka- ko 3 botu (PSE-EE) eta abstentzio batez (Alternatiba) proposamena onartzea erabakitzen du.

#### VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeita bostak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziur- tatzten dudalarik.

